




3.2.1.2.- Bizikletaz eginiko joan-etorrien kopuruaren bilakaera, eta kopuru horrek joan-etorri guztietan duen pisu erlatiboarena

a) Bizikletaz eginiko joan-etorrien kopurua



Iturria: Mugikortasun Zuzendaritza


Apiriletik urrira egindako txirrindularien zenbaketaren arabera, hirian egunero batez beste **19. 591** joan-etorri egiten dira.

Eskuratutako datuak aztertuta, txirrindularien joan-etorriak % 9 areagotu ziren, 2014. urtearekin alderatuta. Azken urteetako datuak kontuan hartuta, ikus daiteke bizikleta bidezko mugikortasuna sendotzen ari dela eta bizikleta gero eta gehiago erabiltzen dela.

Zenbatutako guztiak kontuan hartuta, bizikletaz mugitzen direnen % 42 emakumeak dira, eta % 58, gizonak.



b) Udal garraio sistema erabiltzen duten bidaiarien kopurua (Donostia Bus).



Iturria: dBus

2015ean, 28 milioi bidaia baino gehiago mantendu ziren, 2014an baino % 1 gehiago. 2005. urteaz geroztik, bidaien kopurua % 2 igo izan da batez beste urtero. 2010ean eta 2011n 29 milioi bidaien kopurua gainditu zen, baina 2012an eta 2013an Dbus bidaien kopuruak behera egin zuen, murrizketa % 1 eta % 5 izanik, hurrenez hurren.

Ekonomia krisiak hiri garraio publikoaren erabileran eragindako murrizketa orokorraz gainera, Dbusen izandako bidaia kopuruaren jaitsiera azaltzeko arrazoi "estrukturalak" izan daitezke, batetik, Intxaurren eta Herreran 2012aren amaieran zabalduko Euskotreneko geltoki berriak, eta bestetik, Gipuzkoako garraio publikoaren tarifen integrazioa, 2013ko martxoan martxan jarri zena bidaiarien aldaketa eraginez.

Horren harira, 2015ean, guztira, 2.905.856 bidaia erregistratu ziren Donostian, hiriarteko autobusetan edo Euskotrenean. Horrela, hiriko garraio bide guztien arteko bidaiak, guztira, 31.149.310 izan dira, 2014an baino % 1 gehiago.



Udalerriko geltokietan hasi/bukatzen diren bidaiak, Mugi/LurraldeBus txartelarekin eta eskudirutan ordaindutako bidaiak	
LurraldeBus	1.327.887
EuskoTren	1.577.969
Guztira	2.905.856